

# AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



## BASOBALTZEAN ERRI AGINTARITZA

Batzuk gizartean dana-eginbearreko lez agertzen dira, alegi onetako norkien antzera. Eta eurentzat onurea nai izaten dabe, besteen balioak eta bear-izanak kontuan artu bagerik.

Ienea, tximinoia, untxia, papagaioa eta lukia alkartea sortzeko batu ziran eta esan eben:

—Guztion indarra ta maltzurkeria batu ezkeru, geu izango gara basobaltzean aberatsenak. Baiña gure alkartea demokrazia izango da: guztiok bakoitxarentzat eta bakoitxa guztiontzat.

Asko poztu ziran pentsabide orregaz eta euren jakiak otzara baten ipiñi eta osteraz luze batera urten eben. Biderik erdia egin-orduko, janariak amaitu jakezan. Orduan ieneak basoko aatean abi eder bat ikusi eban, arrautzaz beterik, eta esan eban:

—Adiskideok, ni ementxe geratuko naz aatetxuak jaiio-arte eta gero jan egingo dodaz. Orrelan jarraitu al izango dautsat gure bideari.

Gelditu ziran pizti guztiak eta illebete itxaron eben eta azkenean barrero jarraitu eutsuen bideari.

Egun asko igaro ebezan ibiltzen eta tximiñoiak palma batzuk ikusi ebazan koko-intxaurrez beterik, baiña oraindiño eldu bagerik, eta esan eban:

—Itxaron egizue koko-intxaurrek eldu-arte, gero nik jan egingo dodaz eta bideari jarraituko dautsagu.

Iru illebetez itxaron eben koko-intxaurrek eldu-arte, eroapen aundiz eta gero barrero artu eben bidea.

Une baten untxia gelditu zan eta esan eban:

—Ni ezin naz ibilli geiago! Zergaitik ez dogu itxaroten ementxe euriak etorri-arte? Orduan bedarrak aundi egingo dira eta nik jan al izango dodaz, gero bideari jarraitzeko.

Bidea artu ebenean papagaioak esan eban:

—Goseak ilten nago —eta, asarre, palma-lorearen gainean ezarri zan eta lagunai esan eutsen:

—Ile batzuk barru landara onek igali ederrak emongo dauz. Geratu zaitzeze emen arik eta eldu arte. Nik jaten dodazenean, barrero artuko dogu bidea, geiago ez geratzeko.

Lukia asarretu egin zan eta taldearen jokabidea lotsagarria zala esan eban. Ieneak be berba egin eta esan eban erri-agintaritzaz dauken errietan gitxiengoaren eritxia be kontuan artzen dala. Orregaitik, papagaioaren berbak be kontuan artu eta itxaron egin bear zala.

Ille batzuk igaro ziran eta papagaioak sabela bete eban, baiña beste piztiak gosetu egin ziran eta aurkitu bear eben lurralde aberatsa oraindiño urrin egoan.

Lukiak, beste piztiak bero egozala ikusita, maltzurkeriz esan eban:

Guztiok jan dozue demokrazi onen barruan, baiña ni, errukari au, naz bakarra ezer jan bagerik nagoana. Ori ondo dago? Begiratu zer jazoten jatan: Nire zurra buzti da eta dau zikatu gura.

Piztiak sinistu egin eutsoen eta negar be egin eben. Orriak batu eta leizara eroan ebezan, lukia etxun eitean osatu-arte.

Gabean, banan-banan, joan ziran lukiaren zurra ikustera zikatu ete zan jakiteko, baiña urrean egozanean lukiak agoa zabaldu eta jan egiten ebazan.

Urrengo goizean, demokrazi-taldetik ez zan geratzen lukia baiño. Onek sabela bete-beterik eukan etaberau zan landa guztien jabe.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek